




Bihotz artifizial bat transplantatu dute Nafarroan

Nafarroako Unibertsitate Klinikoko eta Nafarroako Ospitale Guneko mediku taldeek bihotz artifizial oso bat transplantatu diote gaixo bati Nafarroan. Espainain egiten den gisa horretako lehendabiziko ebakuntza da.



47 urteko nafar bati bere jatorrizko bihotza kendu eta horren ordean bihotz artifizial oso bat jarri diote, Nafarroako Unibertsitate Klinikoko iturriek jakinarazi dutenez.

Gaixoak miokardiopatia larria zuen eta urtebete egon zen transplante baten zain. Ebakuntza irailean egin zioten gaixoari eta ospitaleratuta jarraitzen badu ere, onera egiten ari da.

Gaztelugatxeko kostaldea garbitzeko auzolana bihar egingo da

Amaitu dituzte *Game of thrones*-eko zazpigarren denboraldirako Bizkaiko kostaldeko grabaketak, baina Gaztelugatxeko kostaldea hondakinez garbitzeko auzolana bihar izango da.

Bermeoko Udalak eta Lurgaiak Fundazioak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren laguntzarekin antolatutako auzolan azaroaren 5ean egin behar zen, baina bertan behera gelditu zen eguraldi txarragatik, eta hitzordu berria bihar izango da.

Zazpi atxilotu billete faltsuak egin eta ondoren banatzeagatik

Guardia Zibilak bost gizonezko eta emakumezko bi atxilotu ditu Asturias, Euskadin eta Kantabrian billete faltsuak ekoitzi eta banatzea leporatuta.

Faltsututako billete gehienak 20 eurokoak ziren eta hiru erkidegoetako dendetan ordaintzen zuten.

Edari freskagarriei tasa bat ezarriko die Gobernuak

Hedabideek aurreratu dutenez, aldaketak izango dira zerga berezietan. Erregaien eta garagardoaren gainekoak bere horretan utziko ditu ministroak, baina tabakoaren gainekoa igoko du EBren legedia betetzeko, eta alkoholaren gainekoa ere koska bat handituko du.

Berritasun nagusia zerga berri batek izango du: edari freskagarrien gainekoa. Zenbatekoa izango den ez dute aurreratu, baina zentimo gutxi batzuk garestitu beharko lituzke freskagarriak.

Beste herrialde batzuetan, Frantzia esaterako, 2012an ezarri zuen zerga bertako Gobernuak. Orduz gero, Lapurdin. Nafarroa Beherean eta Zuberoan 2,5 zentimoko zerga bat ordaintzen du freskagarri lata batek. Frantziako Asanblean eztabaidagai dago orain tasa hori handitzea: 4,6 zentimo latak. Freskagarriei ez ezik, azukrea gehitu zaien zukuei eta esneki batzuei ere jartzen zaie. 2015tik, gainera, *Red Bull* zerga indarrean dago, edari energetikoei ezartzen zaien zerga berezia.

Mexikok eta AEBetako hiri eta estatu batzuek ere antzeko zerga bat dute, eta ezartzeko asmoa dute Portugalak, Erresuma Batuak, Irlandako Errepublikak eta Hego Afrikak.

Osasunaren Mundu Erakundeak sarritan eskatu du edari freskagarriak zergapetzea, haiek duten azukreari egozten baitio obesitatea hedatzea.



Gutxieneko soldata igoko da 2017an

Espainiako Gobernuak gutxieneko soldata igotzea erabaki du gaur, 707,6 euroraino. Orain arte, 655,2 eurotan zegoen, 14 soldatatan.

Barakaldon atxilotu dituzte etxeetan osten zuen taldeko hiru kide

Espainiako Poliziak 48 lagun atxilotu zituen asteartean hainbat probintzian, batez ere Madrilen eta Bartzelonan, etxeetan lapurretak egiten dituen talde bateko kide direlakoan. Gerora jakin denez, atxiloketa horietako hiru Barakaldon egin zituen Poliziak. Atxilotutakoak Georgiakoak dira, eta 100 bat lapurreta egotzi dizkiete. Atxiloketez gain, baina, miaketak egin zituzten Madrilan, Sevillan, Bartzelonan eta Bizkaian.

Etxeko atean, zerbait bat topatzen baduzu... lapurreta egin nahi dizute

Ertzaintzak hurrengo asteetan arreta handiz ibiltzeko eskatu die herritarrei, lapurrek abenduko zubia eta Gabonetako oporrak aprobetxatzen baitituzte etxeetan osteko.

Lapurren '*modus operandi*'a antzekoa izan ohi da: aldez aurretik, zerbait jartzen dute etxe atean, hura zabaltzean erortzen ote den egiaztatzeko. Horrela, etxean norbait dagoen jakin dezakete.

Zerbait hori zenbait egun erori barik ikusten badute, etxea hutsik dagoela ondorioztatzen dute, eta lapurreta egiten dute.



Ez dakizula zer egiten datorren astean?

Hamaika gauza Durangoko Azokan

Durangoko Azokako 51. edizioak 349 nobedade, 246 erakusleho eta 200 kultur ekitaldi baino gehiago eskainiko ditu ostiral honetatik, hilaren 6ra bitartean.

Nobedadeen artetik, 233 liburuak izango dira, 61 diskoak, 19 aldizkariak, 31 bestelakoak (joku, agenda, egutegi) eta bost bideoak.

Informazio gehiago: <http://durangokoazoka.eus/es>

EGURALDIA



Bihar, giro egonkorrarekin jarraituko dugu. Zerua hodei gutxirekin egongo da egunaren lehen partean, baina arratsaldean eta gauean hodeiak ugartu egingo dira eta zerua erdi estalita geratuko da. Hego-ekialdeko haizea ibiliko da, egunak aurrera egin ahala gero eta zakarrago, eta azken orduetan haizeguneetan bolada oso zakarrak izango dira. Tenperaturan ez da aldaketa handirik izango. **Etzirako**, aldiz, fronte batek hodeia eta euri pixka bat ekarriko digu. Arratsaldean hodeiak gutxitu egingo dira. Hego-ekialdeko haizea oso zakar ibiliko da goizean, baina eguerditik aurrera indarra galduko du. Temperatura minimoak hiruzpalau gradu igoko dira.


Talgok Rivabellosan duen fabrian lanpostu berriak sortuko dira

Talgok Rivabellosan duen fabrian lanpostu berriak sortuko dituzte, Renferekin kontratu handi bat sinatuta. Talgok abiadura handiko 30 tren egingo ditu Renferentzat, eta horien mantenuaz arduratuko da ondoren.

Tren guzti horien ekoizpenak urtero 1.000 lanpostu sortzea ekarriko du datozen bost urteotan; eta beste 100 sortuko dituzte tren horien mantentze-lana 30-40 urtetan egiteko.

Alabaina, konpainiak oraindik ezin izan du esan zehazki zenbat lanpostu sortuko diren Rivabellosako lantegian eta zenbat Las Matasen (Madril).

Arabako fabrian *Avril* deitutako trenaren bagoiak egingo dituzte; eta Madrilekoan, bagoi traktoreak. Urtebete eta bi hilabete barru hasiko dira trenak ekoizten.




Trapagarango Bombardierren 40 trenentzako motorrak egingo dituzte

Bombardier konpainiak iragarri du Trapagan duen lantegian egingo dituela Frantziak eskatu dizkion 40 tren elektrikoek propulsioko ekipoa.

Kanadako multinazionalak 585 milioi euroko kontratua lortu du Frantzian tren elektrikoak egiteko.

Bi solairutako trenak izango dira eta 200 kilometro orduko abiadura hartzeko gaitasuna izango dute. 2019rako martxan egotea espero da.

Raul Garciaen bi goleak garaipena eman diote Athletic Sardinon



Athleticek Errege Kopako final-zortzirenetarako bidea ireki du. Bizkaiko taldea nagusi izan zen Racingen aurkako partidaren, baina etxekoek gola egin zuten. Javi Cobo izan zen golegilea.